

## GURASOEN KEZKAK: AUKERA SORTA

**Orain arte euskaraz egin du lagunekin baina gero eta gaztelania gehiago erabiltzen ari dela ohartu naiz. Zer egin dezaket?**

- Etxean eta eremu sozialarekin euskara erabili eta euskaraz kontsumitu: eskolaz kanpoko jarduerak burutzean euskarazkoetan eman izena, etb-1 eta etb-3 saioak jarri, euskal kantak entzun kotxean edo etxean zaudetela, herriko antzerki edo kultur saioetan euskarazkoetara jo. Alegia, euskarazko eremuak sortzera jo.
- Etxean edo lagunartean euskaraz arituko diren haur eta erreferenteez baliatu.
- Zer ari den gertatzen galdetu eta lasai, abegikortasunetik eta atseginetik berekin landu euskararen erabilera.
- Ikastolako irakasleari esan geratzen dena, arrazoia zein den identifikatu eta haren gaineko lanketa egin asmoz.

**Anai-arreben artean euskaraz egin dute orain arte, baina gero eta gaztelania gehiago erabiltzen dute.**

- Etxean zergatik ari den hori geratzen landu, galdetu hurrei.
- Zer garen, nor garen landu etxean, zer den euskaldun izatea. Zergatik hitz egiten dugun gure etxean euskaraz.
- Etxeko jardueran euskararen erabilera indartu: ahozkoan, kontsumitzen den eremuetan (telebista, pelikulak, musika...).
- Erabiltzen dituen app, sare, etab. etako euskarriak euskarazko erreferentziak bilatu eta berekin batera kontsumitu, edo erabiltzera bultzatu.
- Aisialdiari lotutako jarduerak (kultura, kirola, irteerak, udalekuak) euskaraz egitera bultzatu.
- Udalerriko jarduera sozio-kulturalak euskaraz kontsumitzera jo, berekin batera.
- Etxean, familian eta kalean, euskaraz hitz egin, inguruko beste hurrekin egitera bultzatu (parkean, jolasean, kafetegian edo kiroldegian gaudela).
- Ikastolan interbentzio bereziak egin daitezke euskarazko ahozotasuna eta kalitatezko erabilera bultzatzeko, horretarako hauraren aliantza, gurasoen moduan, behar genukeela proposatu. Behar ditugu, erreferentzia dira, euskara dakite eta erabiltzeko joera dute; lgurekin batera aritu nahi lukete besteak ere ekartzeko euskararen mundura? balorean jarri haien egitekoa eta profila, gurekin batera aritzeko proposamena luzatu.



### Seme-alabei euskaraz egiten diegu baina gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura dugu. Zer eragin izan dezake horrek?

- Gurasoak erreferenteak dira edozein eremutan haurrentzako. Gurasoek zer egin, haurrek hura errepikatu.
- Ohitura horiek aldatzen joateko konpromisoak hartzeko prest daude? horretara animatuko ditugu, modu mailakatuan.
- Euskaraz badakite, euskara erabili eta euskaraz kontsumitzera animatu.
- Erdizka badakite edo ez dakite, ikastolak zein udaleko euskara zerbitzuak antolatutako trebakuntza edo mintzalagun programetan parte hartu. Ikastolako guraso elkarteak haien arteko erabilera indartzeko jarduerarik badute, hartan parte harztera animatu eta haiekin harremandu. Ikastolak pasako duen oinarrizko hiztegitxo erabili, eta euskarazko kantu zein ipuin eta bestelako euskarriak etxean erabili. Dakiten apurra erabili, eta haurrei eskatu haiekin batera aritu daitezen, lagundu ditzaten euskararekiko gerturatze horretan (haurrek euskaradun rola indartu, errefortzu positiboa).

### Nik euskaraz dakit baina nire bikoteak ez. Nola egin behar dugu seme-alabekin etxean?

- Norberak bere gaitasunen arabera, euskaraz. Guraso euskaldunak euskaraz, bera izango da hizkuntza erreferente eta sustatzaile nagusia.
- Euskaraz ez dakien gurasoak, laguntza eskatuko dio haurrari lagundu dezan dakien apurra erabiltzera, eta eskuratuko duen oinarrizko hiztegitxo eta gainerako euskarriak, erabiltzen saiatuko da. Haurra gurasoarekin aliatu behar da izan, eta euskara erabiltzeko esfortzua nabaritu.

### Euskara aritzea oso zaila da, denek gaztelera badakigu, zergatik ez jo horra bileretan adibidez?

- Euskara ez da beste hizkuntza baino zailagoa, adina baizik.
- Ez dago hizkuntza zaila edo erraza denik, egia bada ere zenbat eta harreman gertuagokoa eta maizagoa izan hizkuntza batekin, orduan eta errazagoa egitera zaigu haren ikaste prozesua, besteren artean ditugun input-ak horretarako lagungarri izan ohi direlako.
- Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta errazagoa izan ohi da hizkuntza gehiago ikastea.
- Gainerako ikasgaiak eskuratzeko ordea, hizkuntza ezinbestekoa da. zenbat eta hizkuntza aberatsagoa izan, orduan eta ezgautza aberatsagoetara jotzeko aukera izango du ikasleak.
- Batzarreran euskara ere erabiliko dugu gutxienez, euskal hiztunek hizkuntza eskubide osoa izatearekin batera hala egiteko, euskara ez dakiten gurasoentzat lagungarri izango delako euskara entzutea eta hartara belarria egiten joatea. Euskal hiztunentzat nahiko astuna izaten bada ere hainbat azalpen elebrietan entzun behar izatea (bi hizkuntzak ezagutzen dituztenez), ulertzen dute guraso batzuek behar izatea gazteleratzea, eta abegikortasunez joatzen dute haiekiko.



### Hurrek etxetik dakarten euskalkia galduko al dute ikastolan aritzearekin?

- Hizkuntza formalak adina garrantzia du hizkuntza ez formalak, euskalkiak kasu honetan.
- Ikastolan landuko dugun euskara batuarekin batera, euskalkia erabiltzeak abantailak besterik ez die ekarriko hurrei, hizkuntza erregistro desberdinak eskura izateak, hizkuntza aberastu eta elikatzea dakarkielako.
- Gainera ikastolan hizkuntza formala eta ez formala, biak lantzeko lanean ari gara. Beraz haurren euskalkiak hor lekua izango du, eta nekez galduko du beretik dakarrena. aitzitik, hura indartu eta aberasten jarraitzea izango da guztion lana, bai etxean zein ikastolan.

### Lagunekin ari direnean gero eta euskara nahasiagoa erabiltzen dute, batzuetan ez dakit euskaraz edo gaztelaniaz ari diren.

- Gertatzen ari den arazoa da, errealitate bat da, bai. Baina beste egoera batzuekin bezala, honi buelta eman behar diogu. Eta horretarako aukera desberdinak ditugu.
- Ahozko euskararen erabilera modu ludikoan landuko dugu.
- Erdaradak identifikatzeko jokoak abiatuko dugu, eta zer dagoen gaizki, nola komeni den esatea landuko dugu. Gurasoak jokoaren parte aktibo behar dira izan, hurrengan gelditu ez dadin ondo/gaizki egitearen karga.
- Kanpoko erreferenteak ere bilatu eta landu ditzakegu, balio positiboak, erabilera zuzena, haien erreferenteen bidez landu daitezzen.
- Konturatu gabe euskara entzuten (eta erabiltzen) has daitezzen, euskarazko kantak jarri kotxean, etxean zaudetela; eta ahal dela haiei galdetu zer duten gogoko, hura jarriz.
- Lagunen gurasoekin halako dinamika proposatu.
- Ona al da etxetik euskalkia transmititzea eta eskolak euskara batuan ematea?

### Ona da eta komeni da egitea. Aldaera biak ikasi daitezkeelako eta aberatsagoa izan daitekeelako.

- Aldagai bakoitzak bere erabilera-esparrua dauka, eta hori beti da ona, zenbat eta hizkuntz aukera gehiago izan, orduan eta modu aberatsagoan erabiltzeko aukera izango baitu haurrak, kaleko zein ikastolako eremu desberdinetan.
- Ikastolan eta bereziki gela barruan, hizkuntza formala erabili eta lantzen dugu. Gela barruan hizkuntza ez formala, euskalkiak, hizkerak, erregistroak lantzeko lanean dihardugu.
- Baina horretarako etxeko erabilera oso baliagarria da. Etxeko hizkuntza ez formala, sozializatorako balekoa dena, sentimenduekin eta harreman afektiboekin lotzen dena, osagarri eta aberasgarri da.



- Hizkuntza asko eta maiz erabili behar dugu, eremu desberdinetan, erregistro desberdinekin, aberastu eta egonkortzeko.
- Haurrak zenbat eta hizkuntza aberatsagoa izan, zenbat eta erregistro zabalgoa ezagutu eta erabili, orduan eta aldamiaje linguistiko handiagoa izango du eskura, sozializatzeko eta ezagutzak barneratzeko.

### **Gaztelaniaz/ Frantsesez ondo ikasiko al dute? Etorkizunean gaztelaniaz/frantsesez ikasi behar balute, izango al lukete arazorik?**

- Ikastolak hezkuntza eredu eleanitza du, euskara oinarri duena. Euskararekin batera gaztelera /frantsesa eta ingelera lantzen da hastapeneko etapetatik hasita, beraz ez du inolako arazorik izango ikasteko.
- Familia eta ikasle eredu berriak iristen ari dira ikastoletara, eta horietako askok euskara erabiltzeko eremu bakarretakoa izango dute euskara; beraz gelaz kanpo ere euskara ez denik entzungo dute.
- Azkenik, kale erabilerari dagokionean, egoera diglosiko batean bizi gara, euskara hizkuntza gutxitua da. Klean eta kontsumituko dituen hamaika eremutan erdarazko inputak jasoko ditu etengabe.
- Beraz ez du inolako arazorik izango. Izatekotan, euskararen mudarekin izango du arazoa etorkizunean, LH azken etapetan gertatzen hasi baita euskaratik erdararako muda goiztiarra, eta horri bai erreparatu beharko diogu ikastolan eta etxean.

### **Euskara gaizki erabiltzen duenean ona al da zuzentzea?**

- Euskararen erabilera zuzena egitea garrantzitsua da. Beraz gaizki ari denean zuzendu beharra dago, baina ez “gaizki ari zara” esanez inolako kasutan.
- Edozein kasutan zuzentzeko moduak dira landu beharrekoak: modu atseginean, abegikorrean zuzendu behar da. Eta horretarako gaizki esandakoa zuzen errepikatzea da aukera bat, ulertu ez diogula galdetzea eta berriro baina zuzen esatea eskatzea da beste aukera bat.

### **Nik esandako gauza asko zuzendu egiten dizkit. Kasu egin behar al diot?**

- Gaizki esandakoa zuzentzen badu, jakina.
- Elkarrekintza sustatu daiteke haurrak zuzentzen badizu, eta euskaraz harremana sendotzeko balia daiteke gainera.
- Eta kasu egitearekin batera zuzendu izana eskertu eta errefortzu positiboa lantzea dagokigu.
- Azpimarratu behar dugu bere hizkuntza maila jantzia, eta zuzentzeko hartutako ardura.



## Nola lagundu eskolako lanekin?

- Etxeko lanen helburua lan-ohiturak lantzea denez, laguntza berezirik ez du beharko. Nolanahi ere, laguntzarik onena interesa adieraztea bada, bai lanekiko zein euskararekiko. Eta ulertzen ez badu, esaiguzu eta gelan lagunduko diogu.
- Euskaraz badakigu, euskaraz arituz.
- Euskaraz erdizka badakigu, ahal dugun neurrian dakiguna erabiliz. Horretarako ikastolak eskura jarri beharko duen oinarrizko hiztegitxoa edo ikasgaiari lotutako terminologia nagusia erabiltzea komeni da. Eta guraso horrek laguntza behar badu, ikastolan halaxe eskatuko du.
- Euskaraz ez badakigu, ikastolak edota udalerriko euskara zerbitzuak eskainitako euskalduntze zerbitzua (mintzalaguna, gurasoen taldea, euskarazko eskolak) haren eskura jarriko ditugu.

## Ez dut euskaraz ondo egiten, egin behar al nuke beraiekin?

- Bai, egingo den ahalegina haurrak sumatu beharra dauka.
- Horrela gainera haurrak lagunduko dizu, eta haurraren euskararekiko atxikimendua eta bere ezagutzaren balioaz ohartaraziko da, errefortzu positiboa izango da haurrarentzat ere, zuri laguntzea, eta zuk hari laguntza eskatzea.
- Aliantza, laguntza eska dakiokegu gure haurrari, egiten duguna ondo egiten lagundu diezagun. Honekin gutxienez lau ondorio eragingo ditugu: haurraren rol aktiboa piztu, haurraren balioa eta ahalduntzea indartu, gure arteko hizkuntzaren ohitura euskaratik eta euskaraz eraiki, eta jakina, gure hizkuntza maila hobetu.

## Nola lagundu elebidun izan daitezen?

- Ikastoletan ari badira, elebidun baino eleaniztun izango dira.
- Ikastolak gaztelera /frantsesa eta ingelera gutxienez, irakatsiko die. Bi hizkuntza hauek kalean eta erabili ohi dituzten euskarrien bidez lantzen jarraituko dituzte; eta jasoko dituzten input gehienak hizkuntza hauetan jasoko dituzte.
- Gure egiteako beraz bada euskara ahalik eta jantziena eta zuzenena erabiltzea, euskaraz sozializatzeko aukerak sortzea, erabilera eroso eta atsegina izateko eremuak lantzea, haurrak euskara jantzia eta aberatsa jaso dezan.
- Zuek haurrak laguntzen dituzue, ikastolara ekartze berarekin, baina errefortzatu dezakezue ikastolan egindako lana, euskarazko jarduerak kontsumituz, edota eskolaz kanpoko jardueretan euskarazkoetara apuntatuz.
- Euskaraz kontsumitu, izan telebista (erb1 eta 3), euskal kanta entzun, euskarazko musika dantzatu, herrian antolatzen diren euskarazko jardueretan parte hartu, eskolaz kanpoko euskarazko jardueretan matrikulatu. Haien unibertsoa, erreferentziak eta kontsumoa, euskaratik sortzen lagundu.



## Ikasiko al dute ondo gaztelania / frantsesa? Ikasiko al dute ondo euskara?

- Ikastoletan hezkuntza eredu eleaniztuna dugu, euskara bertan zutabe nagusi delarik.
- Batez ere gaztelera/frantsesez jasoko dituzten inputak hain dira handiak eta alde guztietatik etorritakoak, ezinbestean ikasiko dutela, ikastolako beste hurrekin izango duten harremanetik hasi, eta kaleko erabileratik jarraituta.
- Euskara ikasteko ordea, hizkuntza gutxitua dugun neurrian, estrategia eta indar berezia jarri behar dugu. Euskaraz arituko diren eremuak sortuz, euskaraz kontsumituz, euskaraz jarduteko espazio atsegin eta erosoak eraikiz, erreferentziak landuz eta noski, euskaraz aritzeko ingurua eraikiz.
- Hizkuntza bat ondo ikasteko, erabili egin behar da, asko eta eremu desberdian erabili. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta hizkuntza aberatsagoa izateko aukerak sortzen dira. Gaztelera/frantsesak eskainiko dizkio eremu horiek guztiak; euskara ordea, guk -ikastolak eta gurasoek- izan beharko dugun jarrera aktiboaren bidez eskuratuko du.
- Zenbat eta eremu gehiagotan hizlari gehiago aritu eskolan eta eskolatik kanpo, orduan eta aukera handiagoak eta aberatsagoak sortuko ditugu gure hurrek eroso, seguru eta gustura aritzeko euskaraz.

## Euskara eta gaztelania/frantsesa nahasten badituzte zer egin?

- Hizkuntza bata zein bestea zuzen erabili, eta goian aipatutako norabidean zuzendu.
- Halere positiboki, abegikor, atseginetik eragin beharra dugu haiengan; nahasten uztea ez da aukera, hala eginez gero hurrengo urratsa gaztelera/frantsesez aritzea izango baita.

## Ezin diodanez ikasketekin lagundu, arazoak izateko arrisku handiagoa al du?

- Ez, lasai, hartu, ikasiko du eta.
- esaiguzue zer behar zenukete haurra lagundu ahal izateko eta guztion artean bilatuko dugu aukeraren bat.
- Ikasketekin laguntzea beti da ona, baina ikastolak aukerak eskaintzen ditu errefortzua eskaintzeko, lasai beraz.
- Egizu ahal duzun modura arte, bitartean ikastolak lagunduko zaituzte.



## Ingelesa bada etorkizuneko hizkuntza, ez al genioke indar berezia jarri behar hari?

- (“Etorkizuneko hizkuntza” kontzeptua desegin beharko genuke)
- Dagoeneko nahikoa indar eta presentzia ematen diogu ingelesari, hastapeneko etapetatik hasita; gainera haien kanpoko erreferentzia ugari, presentzia hau indartu besterik ez dute egingo.
- Euskarak aitzitik, gurean du presentzia eta izaera, eta guretik indartu beharra dugu. Hizkuntza hegemonikoek (ingelesa, gaztelania/frantsesa) eta euskarak (hizkuntza gutxitua, berezko gure hizkuntza) oso espazio desberdinak okupatzen dituzte. Ingeles hiztunak nonnahi daude, euskaldunak hemen besterik ez gaude. Beraz lasai egon, beste hizkuntzak ikastolan ikasi eta kanpoan indartuko dituzte; euskara, ikastolan zein etxean ikasi, eta denon artean indar bereziarekin indartu beharko dugu.

## Egia al da euskaraz ikasten dutenek gaztelaniaz/ frantsesez idazterakoan akats gehiago egiten dituztela?

- Ez. Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi, orduan eta gaitasun linguistiko handiagoak dituzte. Eta ondorioz edukiak barneratu eta transferitzeko aukera gehiago sortzen dira.
- Edukiak barneratu eta sortzeko, hizkuntza ezinbestekoa da. Zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu eta erabili, orduan eta aukera gehiago sortzen dira edukiak sortu eta barneratzeko.
- Beraz euskaraz ikasten duenak, askoz ere aukera handiagoak izango ditu.
- Ondo idatzi, hitz egin edo irakurtzeko, asko idatzi, irakurri eta idatzi beharra dago. Arituz ikasten baita.

## Euskaraz dakiten arren, haurren artean gaztelaniaz/ frantsesez egiten dute. Nik esaten diet euskaraz egiteko baina ez didate kasurik egiten.

- Haurren artean aritzeko eremuak sortu behar dira, ikastolan eta ikastolatik kanpo: euskarazko kantu, dantza, joko eta ikusentzunezkoen bidez. Ohitura atsegin eta erosoak eraikitzeko espazioak sortu behar ditugu.
- Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz kontsumitzera animatu behar ditugu, izan udalekuak, kultura zein kirolari lotutako jarduerak.
- Beste hurrekin euskaraz aritu behar da, berritsu rolean jarrita.
- Eta beste gurasoak animatu ditzakegu hori egitea, jarrera proaktibo eta eragile batetik.



## Alabak ez du nahi nik euskaraz egiterik, gaztelaniaz/frantsesez egiteko eskatzen dit.

- Zergatik ari den horrela galdeiozue, eta berekin lasai hitz egiten saiatu, arazoa non dagoen indentifikatu ahal dela eta eragiteko aukera desberdinak baloratzeko.
- LHn egokitzapen fase bat egingo da, denbora behar du, bitarte horretan guztiak, ikastola eta zuek, elkarrekin ahaleginduko gara hori aldatzen.
- Euskarazko kontsumoak areagotuko ditugu (telebista, ikusentzunezkoak, sareak, aplikazioak...) eta ahal dela berekin batera egingo dugu.
- Etxeko gainerako kideen laguntza eskatuko dugu, guztiok euskara gehiago erabiltzeko.
- Estratetgia desberdinak erabiliko ditugu: berritsua, ez ulertuarena, euskaraz errepikatu, euskaraz egiteko eskatu, zergatik diharduen etengabe gazteleraz hitz egiten galdetu...

## Orain arte gaztelania/frantsesa besterik ez du entzun, eskolara hastean ez al du gaizki pasako irakasleek guztia euskaraz egitean?

- Ez, lasai, laguntza eta errefortzu berezia eskaintzen diegu euskara ez dakiten haurrei.
- Murgiltze ereduan gaudenez euskaraz egingo diegu, baina une jakinetan atxikimendua lortu nahi badugu gaztelaniaz / frantsesez ere egingo diegu, lasaigunea sortzeko eta berriro ere atseginetik euskarara ekartzeko.
- gure helburua haurrak laguntza da, eta haien hobe beharrez aritzea. norabide horretan aritzen gara beraz.
- Gainera, gurasoei ere, haurrekin euskaraz aritzeko bitartekoak eskaintzen dizkiegu: euskara ikasi edo erabiltzeko espazioak, oinarrizko hiztegitxoak, euskaraz kontsumitzeko kantu eta jolaka, euskarazko zerbitzuen katalogoak...
- Euskarara gerturatze berarekin, gainerako ikasle eta irakasleekin sortuko duen harremana, eta komunitatearekiko atxikimendua, handia izango baita.

## Zein dira elebidun izatearen abantailak eta desabantailak?

- Elebidun izateak abantailak besterik ez ditu.
- Hizkuntzak ikasteak abantailak dakartza gainera, eta beste hizkuntza batzuk ikasteko gaitasunak lantzen dira.
- Jende desberdinarekin, beste herrietakoekin hitz egiteko aukera irekitzen du, ikuspegi globalagoa izango duzue, dagoen eskaintza kultural desberdinerako aukera handiagoak izango dituzue, aukeratu ahalko baituzue zer nahiago.



- Elebiduna, gaztelerarekin/frantsesarekin batera gutxienez euskara dakiena da gure herrian.
- Gure herrian ordea, berezko hizkuntza, hizkuntza gutxitua, euskara da. Hura ikasi eta erabiltzea garrantzitsua da, herri honen parte, komunitateko kide, sozializatorako ahalik eta aukera gehian izateko, hizkutzen ezagutza eta erabileraren bidez edukiak hobeto barnera ditzan, desberdinekin harremantzeko aukera izan dezan, eta etorkizunean hizkuntza desberdinak jakiteak ere aukera desberdinak sortuko baitizkio sozialki, pertsonalki eta laboralki.

#### **Gelan duten hizkuntza nahastearekin, ikasiko al dute ondo euskaraz? eta gazteleraz/frantsesez?**

- Zalantzari gabe, hizkuntza bakoitza, ingelesa barne, bikain ikasiko dute, hori da gure helburua, eta helburua lortzeko metodologia.
- Ikastolan hizkuntza bakoitza etepa jakinetan eta edoki zehatzen bitartez lantzen dugu, beraz lasai egon eleaniztun izango baitira zuen seme-alabak.

